


MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

291 - 2021eko maiatza



SORGIN-EHIZAK
EZ GAITZALA KIKILDU



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

Etxe bat
...
bazkide bat

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE ETA ZUZENEAN BI HILABETEZ BEHIN EGINEN DIREN ZOZKETETAN PARTE HARTUKO DUZU!

MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK:

MAILOPE@LABRIT.NET

638 652 339

[HTTPS://MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA/](https://mailope.eus/bazkidetza/)

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibai Soroa, Txomin Amundarain, Beti Kozkor, Mattie Garaikoetxea, Juan Mari Irastortza, Fran Bravo eta Cederna Garalur.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

04



KUXKUXEAN Maiatzeko zorion agurrak.

08



ELKARRIZKETA



Ibai Soroa eta Txomin Amundarain.

12



IZAN GAZTE Sexuari buruzko zalantzak.

14



BATZARRE Klima, ekologia eta osasun krisia.

18



ERREPORTAJEA



"Araxesen gainetik, Malloen azpitik" dokumentala.

22



KULTURA Lekunberriko artisau azoka.

24



ERREPORTAJETXOA Eskualdeko Baserritarren Elkarte.

27



EMOZIOEN MUNDUAN

28



PLAZATIK PLAZARA QR kode turistikoak.

31



AGENDA





Araika Etxarri Urbizu
Maiatzaren 6an, 9 urte.
Zorionak Araika! Bazoaz kantatzen... eta galderei erantzunak bilatzen. Segi horrela, muxu potoloak etxekoan partez!!

Eneko Etxeberria Etxarri
Maiatzaren 12an, 5 urte.
Zorionak Eneko! Jarraitu beti bezain alai ta bihurri. Muxu handi bat parrandero!



Naroa Elordi Ilarregi
Maiatzaren 11n, 10 urte.
Zorionak prexiosa!! Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Ongi-ongi pasa zure urtebetetze egunean. Muxuak eta besarkada handi bat, asko maite zaituen familia guztiaren partez.



Ane Etxeberria Arguiñarena
Maiatzaren 22an, 4 urte.
Zorionak potxola!! Jarrai ezazu orain arte bezain alai eta jator! Muxu erraldoi bat Eneko, aita, ama eta familia guztiaren partez.

Lorea Navascues Martija
Maiatzaren 2an, 12 urte.
Zorionak Lorea!! Oso ongi pasa eguna, muxu handi bat aita, ama, Unax eta Maiaren partez.



Itxaso Iribarren Saigos
Maiatzak 25, 18 urte.
Zorionak sorgintxo !! 18 urte, hemendik aurrera heldua zara. Zorte on bizitzan!! Hemen gaude behar duzunerako.



Jakes Iturrioz Cruz
Maiatzaren 11n, 12 urte.
Aupa Jakes!! Zorionak Atallutik, Orexatik, Tolosatik...!!!

Peru Esnaola Sotil
Maiatzak 26, 4 urte.
Zorionak Perutxo!! Muxu handi bat etxekoan partez.



Maren Elordi Ilarregi
Apirilaren 10ean, 6 urte.
Zorionak maittia!! Nola handitzen ari zaren!!! Ongi pasa zure urtebetetze egunean. Muxuk eta besarkada handi bat, asko maite zaituzten familia guztiaren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



BESTE OLATU BAT

Dagoeneko ia kalkulua ere galtzen hasiak gara Koronabirusaren olatu artean. Orain arte, zorionez, gurean nahiko airoso ari gatzaio aurre egiten zorigaiztoko birus honi. Baina Aste Santu ondorengo azken olatu honek badirudi gure herritar asko ezustean harrapatu dituela.



ANTZERKIA

Martxoaren amaiera aldera Kultur Astea ospatu ohi zen Ibarberri Ikastetxean, baina aurten Koronabirusaren aurkako neurriak direla eta ezinezkoa izan da ohiko programa aurrera eramatea. Hala ere, DBH1eko ikasleek antzezlan ederra eskaini zieten euren ikaskideei.



ERANAFARROA.EUS

www.eranafarroa.eus atarian geroz eta eduki gehiago topatuko dituzu. 0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoei bereziki eskainitako webgune honetan, euskarazko artikuluak, agenda, baliabideak, aholkuak eta proposamenak bil-tzen ditu. Ezagutzen al duzu?

► Mattie Garaikoetxea (Betelu)



*Apirille joan da bixi
a ze nolako giroa
egualdi honek pizten du
opor ta pesta gogoa*

*Sarritan trakets moldatuz
dantzari ta panderoa
hoixek falta dittuu herrin
jartzeko giro gozoa*

*Batza, sorotan ordea
ezta izan ur nahikoa
debeku, arau, oztopo
bai sobra nazkatzekoa*

*Pentsatu zaun hil berrikin
mozorroa leundukoa
hanbiste txerto ta meiku
hobeako izangoa*

*Beñe hontan aittu gabe
jarri die sesioa
ta halaxe kontuatu
merittu badu osoa*

*Ipiarretik bialtzen dut
errekan bera bertsoa
ia Arriben heltzen dien
ta bota hurrenagokoa*

Datorren hilean bertsotan jarriko dugu... Ainhoa Iriarte Gorostegi!

NEGAZIONISMOA

Ni, nonbait, oso tipo inozoa izan behar dut, eta nik bezala, uste dut, herritar asko; nik ez baitut ikusten beste batzuek begi-bistakoa dela esaten duten hori: Koronabirusaren kontu honen atzean, klase guzietako jende handiak eta dirudunak sortutako konspirazio izugarri bat dagoela.

Nik, egia esan, gaitz puta bat besterik ez dut ikusten, historian izan diren beste asko eta asko bezala, eta oso azkar zabaldu dena, gaur egun asko mugitzen garelako batera eta bestera. Eta, ikusi ere ikusten ditut osasun agintariek ahal dutena egiten gaitz horri aurre egiteko, beti asmatzen ez badute ere, eta tartean bestelako interesak nahasten badira ere.

Baina badira, nonbait, ni baino askoz argiagoak direnak, eta, gorago esan bezala, konspirazio izugarri bat ikusten dutenak honen guziaren atzean.

Badirudi, bideoen bat edo beste ikusi dut, eta artikuluren bat irakurri ere bai, eta uste dut zerbait ulertu dudala, batzuetan oso erraza ez bada ere, ba esan bezala, badirudi hor daudela gizon oso boteretsu batzuk Bill Gates (Microsoft), Zurckerberg (Facebook), Soros (negozio gizona) eta beste asko. Eta nazioarteko hainbat erakunde, Davos-ko foroa, adibidez, eta gobernu batzuk, Txinakoa tartean, noski. Eta multinazional farmazeutikoak, eta nik zer dakit zenbat gizon (emakume gutxi), gobernu, enpresa eta erakunde gehiago; eta badirudi hauek denak ados jarri direla gu kontrolpean edukita mundua goitik behera aldatzeko. Eta hori lortzeko, koronabirusa da bidea, nonbait.

Oso ongi ulertu ez dudana da zertarako halako go-go mundua goitik behera aldatzeko, dagoen bezala beraiek oso ongi daude eta...

Oso ongi ulertzen ez dudana beste gauza bat da, zergatik nahi ote duten negozio gizon, finantza erakunde eta gobernu hauek guzietan turismoa eta ostalaritza suntsitu, hegazkin-konpainiak desagerrarazi, industriari inon diren zailtasunak jarri eta, azken finean, gure ekonomia hondatu, beraiek baldin badira sektore horietan guzietan inbertsioak egiten dituztenak? Ez ote da

hauek denak muturreko ekologistak direla, eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko estrategia bat dela hau dena? Badakizu, jarduera ekonomikoa geldituz gero, kutsadura gutxiago. Bestela, aitortu behar dut: "mi no comprender".

Baina, hitz egin dezagun hainbeste zabaldu diren bideo eta artikuluen horiez: Zein erraza den hartzea dokumentu erreal batzuk kontestutik atereak, gehitu egia batzuk, beste egia erdi batzuk eta gezur txikiren bat edo beste, egin nahasketa egoki bat, koktel bat, eta sortu teoria konspiratorio bat. Deus berririk ez zerupear. Eta zein erraza den teoria horiek sinestea, horrela ginetik kentzen baitugu gure ardura: dena gezurra denez edo beste batzuen errua denez, segi dezadan nik nahi bezala bizitzen, inongo ardurarik hartu gabe. Kulpa beti besteena.

Negazionismo hau, noski, lehen mundu aberatsean bakarrik gertatzen da. Hemen aspaldi desagertu ziren barizela, polioa, elgorria (sarampión), tetanosa, poliomiilitisa, zakurreztula eta beste hainbat gaitz (hainbeste eta hainbeste jende, batez ere haur, hiltzen zituena). Orain oso erraza da esatea gure osasun sistemak edo Osasunaren Mundu Erakundea ustelduta daudela eta boteretsuen interesei salduta daudela, baina ez gure ahaztu behar gaitz horiek desagertu badira, erakunde horiei esker izan dela. Baina, esan bezala, aberaskumeok badugu denbora bestelako istorio fantastiko batzuk asmatzeko, eta bide batez gure ardura ginetik kentzeko.

Zer esatea nahi duzue ba, nik ez ditut imajinatzen Santos Indurain, Gotzone Sagarduy edo Fernando Simón, Bill Gates-ekin bilduta, herritarrak nola izorratu asmatzen.

Juan Inazio Lizarraga Lazkano.

LAGUNDU MAILOPE
LAGUNDU MAILOPE
LAGUNDU MAILOPE

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

JOKATU ETA JOSTATU

Gaur egungo haur, gaztetxo eta gazte askorentzat, ematen du "jokatu" aditza ez dela existitzen, dena baita "jolastu" eta "jolastu". Gainera, bide batez, Euskal Herriko lurralde ugaritako "jostatu", "olgotu" eta abar ere, erabat baztertuta uzten dituzte. Baina, ez da hori bakarrik, baizik eta kontua da, gainera, "jolastu" aditza oso gaizki jokatzeko dutela gehienetan, eta, horren ondorioz, behin eta berriz, mota honetako esaldiak entzuten dira, kirol partiduak jokatu baino lehen edota ondoren, hots, <gaizki jolastu dut>; <oso gaizki jolastu dugu>; <guk baino hobeki jolastu dute>; <asko entrenatu dut>; <oso ongi entrenatu dugu> eta abar, eta abar; nazkanazka egin arte. Hemen ez naiz hasiko irakasten zergatik eta nola den, baina, dakienak, badaki.

Pentsatzen dut, horren arrazoiak eta erruak etorriko direla, etxe eta eskola askotan ez direlako ongi transmititu kontzeptu horiek, baina, bueno, nire asmoa hemen, ez da, hain zuzen ere, errudunak bilatzea, baizik eta konponbideak aurkitzea, -norberak atera ditzala bere kontuak-.

Beste alde batetik ere, suposatzen dut, pilota enpresetan eta futbol klubetan, besteak beste, borondate ona izanen dutela arduradunek, beraien kirolariek, euskara modu egokian erabil dezaten hitz egiterakoan, batez ere, euskal komunikabideetan, are gehiago, ikusita ETB1en, konparazio batera, esatariak saiatzen direla erakusbide ona ematen, kirolari gazteek euskararen erabilera txukuna egin dezaten, baina, argi dago horrela nekez lortuko dutela emaitza onik, horrexegatik, nik honako galdera eta proposamena egiten nieke kirol arduradunei, enpresaburuei eta abarri, benetan borondate ona baldin badute, behinik behin: horren zail izanen ote litzateke, kirolari gazte horiei ikastarotxo txiki bat ematea, oinarriko kontzeptu horiek, behin betiko, ongi ikas ditzaten? Jakina, betiere, era egokian eta irakasle eskudunekin.

Erantzunen bat gustura jasoko nuke.

Xanti Begiristain Madotz (Auritz).

OMBUAREN ITZALA



Sarrerak Mitxauseanean eta Araizko udaletxean salgai!

7

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7 - baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota **STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

BIDEGO



JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

“Txapelketa irabazteak entrenatzeko ilusioa eman digu”

Arribeko Ibai Soroa eta Txomin Amundarain, bizilagunak ez ezik, bidelagun ere izan dira Urrezko Binakako XXI. Aizkolari Txapelketan. Irabazi egin zuten, ia minutu eta erdiko aldearekin gainera, eta garaipen horrek aizkoraren lehen lerroan jarri ditu. Pandemiak asko mugatu du aizkolarien jarduna, baina ilusio handiz daude hurrengo txapelketaren esperoan.

Txapela jantzi zenuten. Espero al zenuten irabaztea?

Ibai: Ba, ez genuen espero. Halere, zaila da aurtengo egoera azaltzea: aurtun ez da beste urte batzuetako maila egon, aizkolariek iskanbilak izan zituztelako federazioarekin. Normalean txapelketa honetan parte hartzen zuten aizkolariek ez zutenez parte hartu, ba, guri eman digute aukera hori. Txapelketan bazeuden aizkoran guk baino urte gehiago daramatzen aizkolariek, eta, horregatik ere, ez genuen irabaztea espero, inondik inora.

Txomin: Espero ez, baina lan ona egiteko esperantza bagenuen. Oso ongi ari ginen etxean entrenatzen.

“Federaziokoak eta besteak aparte ibiltzea arraroa izango da”

Ez genuen irabaztea espero, baina nik banuen esperantza oso ongi arituko ginela behintzat, eta besteak ere ongi aritu beharko zirela guri irabazteko.

Minutu bat eta 25 segundoren aldearekin irabazi zenuten, gainera.

Ibai: Horrelakoetan, aurretik zozenezan emozionatu egiten zara, motibatu, eta lanak errazago egiten dituzu. Besteak, faborito zirenak, uste baino atzerago geratu ziren, hirugarren.

Txomin: Halere, nik zailagoa ikusten nuen finalurrekoa finala baino. Finalurreko bikote bat zen irabazteko faboritoa, Kañamarestarrak, eta haiei irabazi genienez, animatu egin ginen. Orduan pentsatu genuen agian txapelketa irabazi genezakeela. Lehia hura irabaztea finalekoa baino gehiago kostatu zitzaigun, baina garaipen horrekin neure burua seguru samar ikusi nuen.

Nola entrenatu zarete txapelketarako?

Ibai: Dezente aritu ginen, astean hiru entrenamendu edo egiten genituen.

Txomin: Bi seguru, eta batzuetan hiru. Hasieran, bi astez entrenatzen aritu eta gero, nik meniskoa izorratu nuen, bihurritu, eta hiru astez-edo entrenatu gabe egon ginen.

Ibai: Txomin lesionatuta zegoenez, nik beste batekin hartu nuen parte aurreko kanporaketan.



Amundarain eta Soroa Nafarroako bigarren mailan daude gaur egun. Arg: Labrit.

Zenbat egunen faltan hasi zineten entrenatzen berriro?

Txomin: Otsail erdialdean jokatu genuen finalaurrekoa, eta hori baino hiru bat aste lehenago hasi nintzen. Finalerako, berriz, bai, denbora izan genuen, baina finalaurrekorako justu samar ibili ginen. Aurreneko entrenamenduetan, gainera, gaizki... segituan betetzen nintzen. Arnasarik gabe geratzen nintzen. Eskerrak lbaik tiratzen zuen pixka bat!

Ibai: Entrenamendu gehienak elkarrekin egin ditugu. Tarteka banaka ere entrenatzen ginen, edo korrika ere egiten nuen.

Txapelketan batera aritu zarete, baina orain arte bakoitzak bere bidea egin du: Ibai, zu familiarekin; eta zu Txomin, lagunekin. Nola izan da orain artekoa?

Ibai: Nik egia esan oso denbora gutxi daramat aizkoran, urte pare bat edo. Lehengusuekin aritzen nintzen entrenatzen Arostegin. Iaz Nafarroako hirugarren mailako txapelketa irabazi nuen, eta Txominek aurreko urtean; orain biak berdin-berdin gaude: Nafarroan bigarren mailan eta Euskadin hirugarren mailan.

Txomin: Nik aurreko urtean lehenengo mailara pasatzeko finala, baina belauna izorratu nuen aste horretan izan zen, eta ezin izan nuen finala jokatu. Sei hilabete zain, eta aste horretan belauna izorratu.

Hasieran aipatu duzue arazoak egon direla aizkolarien eta federazioaren artean. Zergatik erabaki dute aparte aritzea?

Txomin: Gu ez gara tartean egon, eta ez dakigu ongi zer gertatu den, baina kontua da federazioak ez zituela aizkolariek kontuan hartzen. Aizkolariek kirola bera hobetu nahi zuten, pentsatzen baitzuten gauza batzuk zaharkituta geratu direla, eta



Minutu bat eta 25 segundoren aldearekin irabazi zuten Urrezko Aizkora. Arg: EgurSport HK.

federazioak ez zuen ezer egiten. Federazioak aurreko esan zuen ez zuela txapelketa egingo, eta aizkolariek beren kabuz antolatu zuten. Dena antolatuta zegoenean esan zieten baietz, egingo zutela; horrek dena lehertu zuen.

Ibai: Ez ziren akordio batera iritsi. Federazioak ikusi zuenean aizkolariek beren kabuz zerbait antolatu zutela, ba, erabaki zuten txapelketa egitea. Baina aizkolariek erabaki zuten beren kabuz segitzea.

Erabaki eta egin. Ona ala txarra al da banaketa hori?

Ibai: Federazioak urteetan lan pila bat egin du, eta jende asko ibili da federazioan. Orain aparte ibiltzea pixka bat arraroa izango da.

Txomin: Alde batetik, ongi iruditzen

“Udako erakustaldiek gastuak kitatzeko balio dute”

“Egur kamioikada batek 2000 euro balio du”

zait; federazioak ez die inoiz ezertan lagundu, trabak jarri izan dizkie, eta aurrera egiteko edo profesionalizatzeko aukera bat da. Beste kirol batzuetan, arraunean, pilotan... puntako mailatan, taldeak, enpresak edo elkarteak daude. Azken finean, federaziotik kanpo daude, baina espektakulua ez da egiten federazioan egonda edo ez egonda. Jendeak aizkolaririk onenak ikusi nahi ditu. Hamabi onenak joan baziren federaziotik, zerbaitengatik izango da.

Zuei ere eragin dizue honek guztiak?

Ibai: Gu, esaten den bezala, inorena ez den lurrean geratu gara. Alde batetik, ados gaude hartu duten erabakiarekin, behar batzuk badituztelako; eta beste alde batetik, haiekin aritzeko aukerarik gabe geratu gara. Euskadiko txapelketan parte hartzeko garaian ere izan genituen kontu batzuk, baina zer egin behar genuen, ez parte hartu eta ezer gabe geratu?

Txomin: Bigarren mailakoek aukera izan zuten Sherpa.ai enpresarekin joateko edo federazioan geratzeko, baina hirugarren mailakoek ez; alde batetik, normala da, hirugarren mailan 30 aizkolarari baino gehiago daudelako eta oso zaila delako halako txapelketa bat aparte egitea. Orain elkarte hau egin dute, eta aurrerago esango dute zer irizpide jarriko dituzten.

Sherpa.ai enpresa baita babeslea; hori gabe, ezingo lukete horrelako txapelketa bat antolatu.

Ibai: Oso zaila izango litzateke. Askoz gauza xumeagoa aterako litzateke segur aski, desberdina, eta ez egindako txapelketa.

Txomin: Egoera bestelakoa balitz, plazak beteko litzukete, eta, horrela, gastuak kitatu: telebista joango litzateke, jendea plazan...

Txapelketez gain, aurten ez baitago erakustaldirik egiteko aukerarik. Egoera bestelakoa balitz, uda honetan erakustaldietan arituko zinatekete?

Ibai: Badirudi baten bat aterako dela,

Entrenamendu gehienak elkarrekin egin dituzte. Arg: EgurSport HK.



IORTIA LI INCA ESTRELA HORTZ ELUSTIA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA

· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

baina oso gauza bereziak izango dira, oso kontrolatuak. Oso arraroa izango da dena, hotza. Ni hasi berria naiz, eta orain arte erakustaldi gutxi egin ditut, eta ez dakit aurten zenbat aterako liratekeen, baina badirudi txapelketa hau irabazita erakustaldi batzuk egingo ditugula.

Aizkolariek erakustaldiei esker irabazten baitute diruaren parte handi bat; babesleak kenduta, badago dirua irabazteko modurik?

Txomin: Oso gutxi kobratzen da, eta ez dituzu gastuak kitatzen. Erakustaldiek balio dute gastu gutxiago egiteko.

Ibai: Udako erakustaldiek, behintzat, gastuak kitatzeko eta pixka bat irabazteko balio dute. Prestatuta dagoen aizkora batek, kirten eta guzti, 350 euro balio du, eta aizkora batekin ez zoaz inora.

Egurra ere zuen poltsikotik ordaintzen duzue.

Ibai: Bai, eta egur kamioikada batek 2000 euro balio du. Urtebetean, entrenatzen zarenaren arabera, bi kamioi gastatuko dituzu, eta aurten, binakako txapelketarako, askoz egur gehiago gastatu dugu, biok entrenatzen garelako.

Txomin: Ohiko urte batean, txapelketa horretarako sarrerak normalak direnean, irabazleak gehiago kobratzen du; saio bakoitzeko gehiago kobratzen du, eta finaleko saria ere askoz hobea da. Aurten ez zegoenez sarrerarik, ba, finaleko saria huskeria bat izan da.

Argi dago, beraz, aizkorak gehiago duela afiziotik dirua irabaztetik baino. Zer asmo duzue aurrerantzean?

Ibai: Momentu honetan, bai, hala da.

Txomin: Udaberrian Urrezko Banakako Txapelketa hasiko dela esan digute orain dela gutxi, baina ez dakigu beste ezer. Udazkenean Euskadiko txapelketa gehiago izango direnaren esperantzarekin gaude, baina ezer argirik gabe.

Ibai: Ez dakigu zer gertatuko den Urrezko Txapelketarekin; normalean, garai honetarako txapelketa hasita egoten da. Aurten pixka bat berandu dabil.



Bitartean, entrenatzen segituko duzue?

Ibai: Bai, beharko! Segitu beharra duzu, ezin duzu kolpetik utzi eta entrenatu gabe egon. Mantendu egin behar duzu. Aurretik egindako lan guztia hortxe dago, eta asko nabaritzen da.

Txomin: Guri txapelketa ongi etorri zaigu, berriak garelako eta entrenatzeko ilusioa eman digulako, baita plaza batzuk egiteko bidea ere. Geure buruarengan konfiantza handiago izateko balio izan digu.

Ibai: Egia da arazo hau guztia egongo ez balitz gu ez ginatkeela momentu honetan egongo. Agian banakakoan bai, hasieran hortxe ibiliko ginatke, baina ez gintuzke inork ezagutuko, eta orain jendeak ezagutu egiten gaitu, aizkolari gehienek.

Aurten ere hainbat txapelketatan aritzea espero dute. Arg: Labrit.

Eta zuk nola argitzen dituzu sexuari buruzko zalantzak?

Etxarri-Aranazko Sexu eta Ugalketa Osasuna Artatzeko Zentroko kideen laguntzarekin.

Datozen aleetan *Izan gazte* atalean sexuaz mintzatuko gara. Eta gai horretan murgiltzen hasteko gure irakurleen zalantzak eta jakin-minak ezagutu nahiko genituzke. Zehazki zeri buruz irakurtzea gustatuko litzazuke? Bidaliezaguzu zure ekarpena mailope@labrit.net e-postara eta Jésus Baena sexu hezitzailearen laguntzarekin zuengan interes gehien pizten duen horretan sakontzen ahaleginguduko gara.

Baina hasteko hitz egin dezagun oro har sexuaren inguruan sortu ohi zaizkigun zalantza horietaz. Non topatu ohi dituzu erantzunak? Sarean? Liburuetan? Senitartekoen bitartez? Lagunen bitartez? Estatistiken arabera, gaur egun nerabe nahiz helduontzat sarean topatu ditzakegun edukiak izan ohi dira gure zalantzak argitzeko iturri nagusia eta kasu askotan bakarra.

Sarean ordea informazio zuzena nahiz okerra topa dezakegu. Horregatik berebiziko garrantzia dauka bilaketak egiterako orduan gaien profesionalak diren horiek sortutako edukiak lehenestea.

Gaur, horietako bat aurkeztuko dizuegu: www.gozamenez.com

Atari honetan, sexuarekin lotutako baliabide eta informazio ugari daukazu eskura. Horien artean bada gure jakin-minak asetzeko oso baliagarria izan daitekeen atala, sexu kontsultena hain zuzen ere.

Webgune honen bitartez edozein zalantza edo galdera igor dezakezu eta denbora gutxian erantzuna jasoko duzu. www.gozamenez.com Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten duten sexu hezitzaileek kudeatzen dute eta beraz bertan eskaintzen den informazioa guztiz fidagarria da. Eta kontsultak anonimoki egin ditzakezu.

Gainera, dagoeneko erantzun asko eta asko topa ditzakezu webgunean.

Desioa, gorputza, antisorgailuak, harremanak, plazera, abortuak, transmisio genitaleko gaixotasunak... Askotariko

gaien inguruko edukiak. Ikus ditzagun adibide batzuk...

▷ ***Kaixo, 15 eta 16 urteko bikotea gara. Galdera hauxe da: ea haurdun geratu ote gaitzkeen barruko arropa jantzita dugula elkarri igurtzi egiten ibiltzeagatik eta likido presiminala tarteko. Orain dela astebete ez zaiola hilekoa jaisten. Mila esker.***

Kaixo, egun on!

Kontatutakoaren arabera, ez da zuzeneko harremanik izan fluiddoen artean, ongi ulertu badut barruko arropa jantzita zenerama-telako. Kasu horretan ezinezkoa litzateke haurdunaldia.

Hilekoaren atzerapena dela eta, askotan estres-egoerak edo urdu-ri egoteak eragina izan ohi du hilekoaren atzerapen horretan.

Lasaiago gelditu eta haurdunaldiaren aukera baztertu nahi baduzue, zuen erreferentziako Sexu eta Ugalketa Osasuna Artatzeko Zentrorra joan eta haurdunaldi-proba bat eska dezakezue hezitzailearen kontsultan.

Gero arte.





▷ **Hepa! Zein da baginako ezpain txikien ohiko tamaina? Nireak oso handiak direla uste dut, eta konplexu handia sortzen dit.**

Hepa!!!

Baginako ezpain txikiak, gorputzeko gainerako atalak bezala, askotarikoak dira. Ezpainak aldatu egiten dira pertsona batzuetatik besteetara, gorputzeko gainerako atalekin gertatzen den bezala. Eta arraroa da koito bidezko sexu-harremanak oztopatzera iristea, hori bada kezkatzen zaituena.

- Hala ere, zure erreferentziako Sexu eta Ugalketa Osasuna Artatzeko Zentrora joan zaitezke eta erizainarekin edo hezitzailearekin ordua eskatu informazio gehiago eman diezazuten eta nahi izanez gero balorazio bat egin diezazuten. Animatu eta joan zaitez kezkatzen zaituen gai horri buruz hitz egitera, ziur zuri konplexua sortzen dizun gai horrekin lagunduko zaituztela.

▷ **Larrutan egin al daiteke hilekoarekin?**

Hilekoarekin zuk eta zure bikotekideak nahi duzuen guztia egin dezakezue.

Medikuntzaren ikuspegitik, hilekoa izatea ez da eragozpena baginako sartzeko-harremanak izateko, baldin eta gutxieneko neurri batzuk hartzen badituzu, hala nola transmisio genitaleko infekzioen kutsaduratik eta nahi ez den haurdunalditik babestea; izan ere, hilekoarekin egonda ere, nolabaiteko obulazio- eta haurdunaldi-arriskua dago.

Agian entzungo zenuten erlijio batzuek hilekoaren egunetan sexu-abstentzia aldarrikatzen dutela, euren ustez emakumea egun horietan "lizunduta" edo "haragikoi" dagoelako. Baina, berriro diot, arrazoi erlijiosoa dira, eta ez medikuak.

Beste bat arte!



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz



SAHARAR HERRIAREN ERREALITEA EZAGUTZEN

Ontza zulo Elkarreak saharar herriaren aldeko bi ekitaldi antolatu zituen joan den hilean, Nafarroko Sahararen aldeko lagunak elkartearen laguntzarekin batera. Beñat Hach Embarek Irizarren eskutik Saharak gaur egun bizi duen egoera ezagutzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Eta apirilaren 10ean, Lekunberriko plazan Sahararen inguruko panel informatiboen erakusketarekin borobildu zuten egitaraua.



UNANUAKO ITURBURUA BERRESKURATZEKO AUZOLANA

Plazaolan, Ixkier ur-jauzirako bidean dagoen Unanuako Iturburua berreskuratzeko auzolanera deitu zuen joan den hilean Ondare Kultur Taldeak. Azken hamarkadetan sasi artean ia ezkutuan egon da. Orain dela bi urte egin zuten lehen garbiketa eta orain bertan zegoen ur-biltegi zaharra bota eta ingurua egokitzen ari dira. Hamahiru lagunek parte hartu zuten azken auzolanean. Pasarela batzuk eta bi mahai jartzea da asmoa.

BETI KOZKOR BERE MOMENTURIK ONENEAN DA

Lekunberriko Beti Kozkor futbol taldeak ezin hobeki hasi zuen apirila. Izan ere, Corellano taldea mendean hartzea lortu zuen (3-2), partida oso txukuna jokatu. Garaipen horri esker, taldea bigarren B mailara igotzeko lehian sartu da. Igoera faseko lehen partida ere irabazi egin zuen, eta horrek erakusten du, besteak bestea, Beti Kozkor futbol taldea momenturik onenean dagoela.





KLIMA, EKOLOGIA ETA OSASUN KRISIA

Iñaki Petxarroman kazetariak hitzaldia eman zuen joan den hilean Lekunberriko Plazaola Tren Geltokian. *Ezezagunerako bidaia. Mundua, klima eta ekologia krisian* liburua kaleratu du eta bertan klima eta ekologia krisiaren gaiak landu ditu eta koronabirusarekin ere izugarritzko lotura duela azaldu zuen hitzaldian. *Ura eta Lurra* Herri Ekimenak antolatutako hitzaldia izan zen. Datorren hilean Kultur Hilabetearen egitarauaren baitan beste hainbat ekitaldi eskainiko dituzte (Ikusi egitaraua (32. orr.).



HERRI TXIKIETAKO ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARRETARATZEA IRUÑEAN

Joan den apirilaren 24an Nafarroako Jauregiaren aurrean elkarretaratzea egin zuten Amazabal Guraso Elkarteko kideek eta eskualdeko herritarrek. *"Kalitatezko hezkuntzaren alde, herri txikiek ere eskubideak ditugulako"* leloarekin joan ziren Iruñera. Nafarroako Gobernuak Amazabal Institutuan egin nahi dituen zerbitzu murrizketak salatu nahi dituzte. Datorren ikasturtean DBHko ikasleak jangela zerbitzuko diru-laguntzarik gabe geldituko baitira eta garraioa ere kolokan dago.

JAKOBA REKONDOK HITZALDIA EMAN DU PRINTZAN

Azken aste hauetan Printzan ekitaldi askorekin gozatzeko aukera izan da. Bi fisioterapeutek masaje tailer ederra eman zuten, ping-pong txapelketa eta muxutruk martxa bete-betean daude eta Jakoba Rekondoren hitzaldia arretaz entzun zuten bertaratu zirenek. Osasun neurriak betetz halako ekitaldiekin gozatzeko aukera daukagu gurean. Ikusi datozen ekitaldiak Agendan!



Araxesen gainerik, Malloen azpitik dokumentalaren estreinaldia

Araizko udaletxean estreinatuko da eta bi pase izanen dira, bata arratsaldeko 19:00etan izanen da parte-hartzaileen-tzako eta bigarrena 20:30ean, herritar orentzako.

la hamar urte pasa dira Araitz eta Beteluko udalek *Labrit Ondarearen* bitartez euren udalerriko memoria immateriala biltzea erabaki zutela. Amaia Apalauza eta Kontxi Arraztio arduratu ziren bilketa fase horretaz. Ikus-entzunezkoan jasotako 22 el-karrizketa horietan oinarrituta, gure

bailarako memoriaren transmisio lana egitea erabaki dute udalek. *Labrit Ondareak* ekoiztutako ikus-entzunezkoa da. Bi udalen ahalegin ekonomikoaz gainera, ezinbestekoa izan da *Beteluko Uraren* babesa.

Dokumentala ekoizteko, 2020ko udan egin ziren ikus-entzunezkoaren

errodaje lanak eta bertan 60 herritar baino gehiagok parte hartu zuten modu batera edo bestera. Batzuek aktore lanetan, beste batzuek, erre-kreazioetarako materiala prestatzen, mendiko irudiak jasotzen... Eta baita musikarekin ere. Oskar Estangak, Javier Irigoienek eta bailarako txistulariek jarri baitiote doinua.

Maiatzaren 7an, Araizko udaletxean estreinatuko den dokumental-lak, gure aitona-amonen ahotik joan den mendeko ohiturak, ogibideak, ospakizunak, harremanak, sinismenak eta askoz gehiago ezagutzeko aukera ematen du. Juanito Huarte, Esther eta Rosario Amondarain, Maria Otermin, Joxe Iriarte, Dolores Arraztio, Martin Otermin, Agustin Askarai, Rosario Saralegi, Graxian Olasagarre, Maria Estefania Irigoien, Juan Jose Goikoetxea, Begoña Saralegi, Txomin Otermin, Maria Dolores Goikoetxea, Anttoni Soravilla, Maria Josefa Buldain, Antton Arrizibita, Alejandro Yeregi, Francisco Soravilla, Jose Miguel Iribarren eta Feliciano Buldain izan ziren orain dela zenbait urte euren etxeko ateari ireki eta denboran atzera egiten lagundu zigutenak.

Dagoeneko, horietako zenbait ez daude gure artean, baina bailarako gaur egungo identitatea eta errealitatea ulertzeko altxorrik onena utzi ziguten, memoria. Guk ere gure ondorengoei transmititzen diegun bitartean hilezkorra den memoria. Nekazaritza eta artzaintza lanen nondik norakoak erakutsi zizkiguten, malkorraren kontra pilotan aritzen



Mikel Rekalde antzara-jokoan errekreazioan. Arg: Labrit.

Intza herri zaharreko 1715 baino lehenagoko etxe hauetatik atxilotuta eraman zituzten (+ ikurra daramatenak ziegan bertan hil ziren):

- Baratzarte: Martin (40 urte).
- Usarbarrena: Martin (80 urte), honen semea Mitxeto (50 urte, +) eta bilobak Johanek "Txalkorra" (21 urte) eta Grazia (18 urte).
- Zapatagindegi: Johanek (57 urte) eta Maria.
- Domingonea: Maria (29 urte).
- Merzero: Catalina "Txurdina" (29 urte, +) eta Karlos.
- Txorro: Maria Hernandoiz (37 urte, +), Miguela (13 urte, +) eta Maria Joana (9 urte, +).
- Perugorri: Joanes Martiniz (60 urte, +).
- Perunea: Maria (+).
- Peruxenea: Maria (20 urte, +), Mariana eta Maria Andres (15 urte, +).
- Orexanea: Miguel, Maria Hualde eta Maria Miguela (26 urte, +).
- Urrutia: Katalina eta Maria (16, +).
- Zamarginea: Johanek (60 urte), Grazia, Frantzes (40 urte) eta Maria.
- Zubieta: Grazia (60 urte, +).

zirenekoak, ihoteetan egin ohi zituzten antzara-jokoak, herrien arteko harremanak, ondoko herriko festetatik bueltan neska eta mutilen artean sortzen ziren hartu-emanak...

Baina baita kontu gogor eta ilunagoak ere, Aralarren ume-umetatik artzain izatearen gogortasuna, Gerra Zibila eta gero, Zaraten barna estraperloan aritzen zireneko pasadizoak, Elizak plazan "al agarrado" dantzatzea bekatutzat jotzen zueneko eta sorgin-ehiza.

Bai, gurean ere Espainiar Inkisizioak gogor zigortu zituen herritarrek. Zeinen ezaguna dugun Zugarramurdiko sorginkeria prozesua eta zeinen ezezagun bertakoa. Ziur aski, Intzako herriak hainbat desgrazia bizi izan ditu bere historian zehar. 1715ean Aralarko akuiferoetako batek gainezka egin eta harkaitza leher-tu zueneko etortzen zaigu burura. Luizi horiek herrigunean zeuden etxe guztiak suntsitu zituen. Hura desgrazia. Baina hondamendi hark ez zuen hildakorik utzi eta nola edo hala herritarrek aurrera egin zuten. 1595ean gertatutakoak ordea, benetako sufrimendua ekarri zuen. Urte hartako lehen hilabeteetan Intzako 28 herritar atxilotu zituzten Espainiako Inkisizio prozesuaren baitan. Sorginkeria kontuak egozten zizkieten.

Prozesu bidegabe hura ulertzea zaila bezain sinplea da. Historian atzera egiten badugu eta Erdi Aroan kokatzen bagara. Baskoien lurralde honetan, jendea herri sakabanatuetan bizi zen eta naturarekin harreman



Balerdiren azpian pilotan jokatzen jarri genituen hiru gazte. Arg: Labrit.

fisiko nahiz espirituala zuen. Euskara zen euren hizkuntza nagusia. Naturako elementuek (urak, suak, lurrak, haizeak, ilargiak, eguzkiak...) izugarriko esanahia zuten eurentzat eta tradizio eta sinismen askorekin lotuta zeuden. Adibidez, hildakoak lurperatzen zituzten lekuetan, suarekin edo argiarekin ematen zieten azken agurra izpiritu txarrak uxatzeko. Txulubita, ttuntuna eta danborra jotzen zituzten eta kantatuz eta dantzatuz ematen zioten ongi-etorria urtaro berri bakoitzari. Gaitzak uxatzeko ere erabili ohi zen musika hura.

Eliza Katolikoa ordea, pixkanaka bere sinesmen eta ohiturak ezartzen hasi zen, baina hasieran herritarrek lehendik zituzten ohitura eta jakintzekiko errespetuarekin. Adibidez, hildakoak elizen barruan lurperatzen hasi ziren, baina kandelarekin argia emanek eta musikaren laguntzarekin kantatu eta dantzatuz.

Pixkanaka gauzak okertzen hasi ziren. Inkisizioa Eliza Katolikoak eta garai hartako agintari latinoek sortu zuten gainerako erlijio, ohitura eta jakintza ezberdinekin amaitzeko helburuarekin. Garai hartan hasi ziren

Estraperloaren errekreazioaren errudajeko irudia, Zaraten. Arg: Labrit.



ezartzen gaur egun ezagutzen dugun kapitalismoa, Eliza Katolikoaren baloreak eta bestelako hainbat gizarte eredu. Euren ereduarekin bat ez zetozenak gizaki basati eta herejertzat hartzen hasi ziren "sorginen maldizioa" asmatuz.

Inkiszioa Erromako Luzio III. Elizburuak, 1184an bulda edo dokumentu zigilatu baten bidez, Frantziako hegoaldean, Albi, Tolosa eta Aran ingurutik Pirinio guztira zabaldu zuen. 1249an Aragoiko Erreinura ere iritsi zen. Eta 1252an Erromako Inozentzio IV. Elizburuak, buldaren bidez baimendu zuen atxilotutakoen aitorpenak lortzeko tortura ere erabiltzea.

Testuinguru horretan, benetako psikosia zabaldu zen eta herritarren artean ere mesfidantza eta beldurra nabarmendu zen. Batak besteari gaitzen eta eguneroko bestelako zorigaitzen errua botatzen hasi ziren eta sorgin kontuekin nahasten. Uken-duak, sendagai naturalak pozoiak zirela zioten agintariek eta horretan adituak zirenak azti edo sorgintzat hartu zituzten.

Fernando Aragoikoak eta Isabel Gaztelakoak, bi erreinuak elkartu zituztenean indarra hartu zuen Inkiszioak, euren interesen alde. Gaztelako armada Iruñean sartu eta gero nabarmen areagotu zen sorgin-ehiza. 1531n Eliz Buruak Iruñean egindako bilkuran, herrian errotuta zeuden ohiturak galarazteko, erabaki hau

hartu zuten: *"Siendo las viglias de los santos establecidas para la oración y contemplación y satisfacer a los votos hechos y no para favorecer la disolución, por consiguiente, establecemos y ordenamos que todos aquellos que van a cualquier Iglesia, sea basilica o ermita, para estar en vela según voto o devoción suya, se abstengan de bailes, danzas sagradas y canciones, así como de toda insolencia o atrevimiento"*.

Debeku horren aurrean euren ospakizunak elizatik kanpo egiten hasi ziren herritarrak. Eta ospakizun horiei agintariek akelarre deitzen zioten edo sorginkeriarekin lotutako ospakizunak zirela zioten.

Andueza Jauregia Atallun zegoen dorredun erakina zen. XIV. mendetik Nafarroako Erreinuak, jauregiko jauntxoakizaten zituen. Araitzerako alkate iraunkor eta babeserako edo larrialdietarako kapitainak. Baina 1512an, bertako Johan Martinez de Anduezak, Gaztelako Erreinuari laguntzeko 400 gizon behartuta eraman zituen Nafarroako Erreinaua menderatzeko. Geroztik, Araitzen zazpi herrietako biztanle eta erregidoreak jauregiko nagusiekin liskar, arazo eta auzi ugari izan zituzten.

1595era salto eginez gero, Andueza jauregiko nagusia Fermin de Lodosa y Andueza zen. Araizko alkate eta epailea ere bazen, Nafarroako diruzain nagusia eta Erregearen aholku kidea. Intzatarrekin ez zuen harreman onik. Besteak beste, gurutzearrekin San Migelerako erromerietara joateko protokoloaren gainean ere auzia izan berria zuten. 1569an Intzak irabazitako auzia zen. Ferminen semea, Pedro de Lodosa y Andueza, aitaren kargua hartzeko merituak egin nahian zebilen eta Intzan atxilotutako hamaika herritarrei sorginkeriei buruzko galdeketa egin zien jauregian bertan eta bere aitaren aurrean. Juan de Areso eskribauak erromantzez jaso zuen itaunketa eta ondoren Iruñeko espetxean sartu zituzten. Ondorengo hilabeteetan beste hamazazpi intzatar atxilotu zituzten.

Guztira atxilotutako 28 pertsona horietatik bost musikariak ziren,

beste batzuek, herri mugimendua sortzen zutenak, ihote eta festen antolatzaileak etab. Garai hartan, besteak beste, Intza eta Errazkin arteko Errege Bide ondoko Urritzolan eta San Migeleko erromeria baliatuz, Albi parajea, Kapatar iturriko zokoan, biltzen ziren ospakizunak eta gau pasak egiteko.

Ospakizun horiek Andueza jauregiko jauntxoek aurkakoak zirenez, sorginen "akelarrea" edo "Ayuntamiento / Junta" deitzen zioten In-

tzako herritarrek egiten zituzten elkarretaratze horiei. Sorginkeriarekin lotutako zantzuak harrapatu zituztela idatziz jaso zuten. Antza Zapategindegi etxean, hartzaren koipea harrapatu omen zuten eltze batean eta beste etxe batzuetan oilo arrautzen azaletan. Hartzaren koipea izatea ohikoa zen. 1548ko maiatzaren 20an, Zaldibian, Aralar zaintzen zuten herriek, hartzaren otso eta beste piztiak ehizatzeke sariak adostu zituzten.

INTZAKO ATXILOTUAK HONAKO BASERRI HAUETATIK ERAMAN ZITUZTEN. 1715. URTEKO LUIZIEK AURRETIK BASERRI HORIEK ZUTEN KOKAPENA.



- | | | |
|-------------------|--------------------|--|
| 1. Errotalde | 16. Urrutia | 31. Hernandorena |
| 2. Herriko Errota | 17. Iriarte | 32. Eliza |
| 3. Urbitarte | 18. Martirena | 33. Barberonea |
| 4. Sorabile | 19. Gelatxo | 34. Perunea |
| 5. Peruxenea | 20. Estanganea | 35. Elizaldea |
| 6. Usarbarrena | 21. Mitxelusarrena | 36. Juangonea |
| 7. Domingonea | 22. Zirako | 37. Zamarginea |
| 8. Utsusarrena | 23. Antsorena | 38. Baratzarte |
| 9. Zapategindegi | 24. Txorroa | 39. Martintxenea |
| 10. Juansendonea | 25. Mertzero | 40. Arretxea |
| 11. Kalparregi | 26. Herrikoetxea | 41. Goikoetxea |
| 12. Usar | 27. Plazola | 42. Bi borda (Errege bidearen zerbitzua) |
| 13. Perugorri | 28. Apeztegia | |
| 14. Kapato | 29. Txartinea | |
| 15. Bengoetxea | 30. Lixibalekue | |



Olano aita-alaba debekatutako dantzen errekreazioan. Arg: Labrit.

Sorgin salaketa hauek, herritarrengan beldurra zabaltzeko erabili zituzten Anduezako jauntxoek.

Bereziki emakumeak beldurtu nahi zituzten, hauek bilkuretara edo festara joan gabe etxean geldituz gero, mugimendua errazago kontrolatuko zutelakoan. Errazkin eta Arribeko apaizak ere estu hartu zituzten, bilkuretan parte hartzen zuten susmoekin. Atxilotu gehienak euskaraz baino ez zekiten eta eskolatu gabeak zirenez, erdarazko itaunketan lagundu nahi ez izatea ere egotzi zieten. Gizon-emakume horiei lizunkeria, anbizioa, izaera indartsua izatea eta elizaz kanpoko sinismenak izatea ere egotzi zitzairen. Tartean, bederatzi, hamahiru, hamabost eta hamasei urteko lau neskato ere baziren.

Urteko lehen hilabeteetan atxilotu eta azarora arte epaiketaren zain egon ziren preso Iruñeko espetxeko ziegatan sartuta. Baina goseak jota egoera tamalgarrian aurretik ziegan hil ziren horietako hamabi.

Martin Barazarte txulubiteroa epaitua izan zen, 100 azote jaso zituen eta 6 urtetarako urruntze agindua ezarri zioten. Gainerakoen kasuan kargurik gabe oso egoera txarrean bueltatu ziren etxera eta gainera euren ondasun guztiak bahitu zituzten atxiloaldia ordaintzeko.

Gertakizun horiek apenas izan dute oihartzunik gurean. Beldurra hein handi batean gertatutakoa belaunaldiz belaunaldi transmititzea eragotzi du. Eta sorginak pertsonaia mitologiko bihurtu izanak ere akaso ez du gehiegi lagundu. Baina gure aitona-amonek, Araizko Goierriin batez ere, eurek entzun dituzten sorginkeria kasuak ongi gogoan dituzte. Beldur eta lilura artean kontatutako istorioak dira. Batzuek egiaz gertatu zirela diote, beste batzuek kontakizunak baino ez direla.

'Araxesen gainetik, Malloen azpitik' dokumentalaren bitartez omenaldi xume bat egin nahi zaie sorgin ehizaren biktima izan ziren Intzako herritar horiei. Garai hartako gure arbasoei esker oraindik euren lanbide, sinismen, ospakizun eta ohitura asko eta asko ditugulako. Horietako batzuk jasotzen ditu ikus-entzunezkoak. Estreinaldia maiatzaren 7an izanen da Araizko udaletxean.

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

**948513056
699179437**

Atabal
okindogia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etkez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE HARATEGIA

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU



Ireki bihotza maitia ireki

Tapia eta Leturiaren kantu batek zion lelo famatu hori gaurko hitzen hasierarako. Ez nuen sekula ulertu bihotza irekitzearena maitasun erromantiko horren harira ez bazen. Azken aldian ohartzen ari naiz, bihotz alde hori dela emozio mordoxka sentitzen dugun lekua, bereziki besteekiko harremani dagokienez, baina ez bakarrik "erromantikoak". Poz handiak sentitzen ditugula hor. Eta ondorioz, min handiak ere.

Ohartu ere naiz, bai, min horietako batzuen ondorioa izan daitekeela "bihotza ixtea", alegia, ez sentitzea, sentitzen dugunari arreta ez jartzea etab. Horrek minak gutxiagotzen ditu noski, baina pozak ere.

Aldaketa handi bat sortu zait hemen, eta da, ohartzea ni naizela nire sentipenen arduradun nagusia, ondorioz, nik hartu behar ditudala erabakiak sentitzen dudanaren arabera, ez besteei eskatu aldatzeko nik sentitzen dudana aldatzeko.

Aldaketa nagusia "zuk horrela sentiarazten nauzu" esatetik (edo pentsatzetik), "zuk hau egiten duzunean nik hau sentitzen dut" esatera izan da, ondorioz, zer egin dezaiegu. Komunikazio ez biolentoko liburu batek dion bezala, besteak izan daitezke gure sentipenak askatzearen eragile, baina ez arduradun (baldin eta ez badago eragin zuzen bat, tratu txarrak, etab...).

Elkarri bihotza ireki diezaiokegun mundu batean bizi nahi nuke. Hor hartzen du zentzua Tapia eta Leturiaren kantaren hasierako puntuak: Ireki bihotza maitia neretzako! Elkarrenganako, aurrera!

Lekunberriko II. BTT lasterketa

Lekunberriko bigarren BTT lasterketa egin zuten, apirilaren 17an. 2019ko proba herrikoiak izandako arrakasta izan eta gero, bigarren lasterketa egitea erabaki zuten antolatzaileek. Nafarroako eskolei zuzendutako lehiaketa bat izan da, eta Atalaya klubaren laguntzarekin antolatu dute, 10-15 boluntario inguruk. 8 eta 14 urteko hurrek parte hartu zuten, goizean eta arratsaldean. Goizean, lasterketa herrikoi bat egin zuten, eta kategoria guztietakoak igo ziren bizikletara: promesak, hasiberriak, kimuak eta infantilak; 35 ikasle inguru aritu ziren horretan. Arratsaldean, berriz, federatuen txanda izan zen, eta 130 txirrindulari inguru lehiatu ziren. Antolatzaileak oso pozik daude lasterketak izan duen harrerarekin. Adierazi dute parte hartzaileei asko gustatu zaiela zirkuitua, eta ikasleek ezin hobeki pasatu zutela.



Harrilatz boulder aretoa itxita

Harrilatz Boulder aretoaren irekiera egin eta gero, kudeatzaileek atek itxi behar izan zituzten otsailaren 20an, Larraungo Udala ohartu baitzen instalazioaren funtzionamendu egokia eta legala bermatzeko hainbat dokumentu falta zirela.

Hasiera batean astebeteko kontua zirudien arren, momentu honetan ez dakite noiz arte iraungo duen itxierak. Hori dela eta, Harrilatzeko kideek barkamena eskatu nahi diete orain arte bazkide egin diren guztiei, eta baita itxieraren ondoren bazkide egiteko interesa adierazi dutenei ere. "Konturatu gara eskalatzaile asko garela eskualdean eta are gehiago zaretela eskalatzen hasi nahi duzuenak eta Harrilatz eza-gutzeko irrikan zaudetenak, eta horrek, asko pozten gaitu. Horregatik, egoera honen aurrean pazientzia eskatu nahi dizuegu, eta noski, edozein zalantza izatekotan gurekin harremanetan jartzeko". Kontaktua: harrilatz.eskalada@gmail.com



Lekunberriko artisau azoka

Lekunberri artisauen, nekazarien eta herri-tarren topagune bilakatu zen apirilaren 4an, Aste Santu bete-betean. Izan ere, Bertako Produktuaren Azoka antolatu zuten igande horretan, eta jende asko joan zen produktuak bertatik bertara ikustera eta erosketa bat edo beste egitera. Denetariko produktuak jarri zituzten etxolatxoetan: barazkiak, esnekiak, marmeladak, txerrikiak, fruitu lehor garrapiñatuak... Elikagaiak ez ezik, gainera, bitxiak eta bestelako apaingarriak ere zeuden eskuragarri, baita umeentzako jostailuak ere. Horrela, inguruko artisau eta nekazariak beren produktuak ezagutarazteko aukera izan zuten, eta herritarrek hobeki jakin ahal izan zuten bertan zein produktu ekoizten diren.



LEKUNBERRI-LARRAUN

90 lagunek parte hartu dute Aralarko gasbidearen kalteak ezagutzeko ibilaldian



Orain dela hilabete, Aralarko gasbideak eragingo dituen kalteak ezagutzeko bigarren mendi ibilaldian parte hartu zuten 90 lagun inguruk. Nafarroako Gobernua Nasuvinsa enpresa publikoaren bitartez, Aralarko ekialdeko isurialdean gasbidea eraiki nahi du, Arakil eta Lekunberri artean. Bigarren ibilaldi hau Madotzen hasi zen eta Oderitz eta Astitz zeharkatu ondoren, Mendukilon amaitu zen. Bertaratu zirenak kezkatuta agertu ziren gure ingurune naturalean sor ditzakeen kalteekin, akuiferoetan, leizeetan, paisaian, monumentu megalitikoetan... Ondare hori erakunde publikoen laguntzarekin aitortu, babestu eta balioztatu da, haren zaintza sustatzeko. *Aralar Zaindu dezagun! Gasbidea hemendik ez!* Plataformak beste ibilbide bat aukera dezatenaren aldarria egiten du. Kaltetutako Kontzejuek eta Arakil eta Larraungo Udalek eskaera horrekin auzitegiatar jo dute, trazadura horri berriz aztertu dadin eta informazioarako eta partaidetzarako bide zabal eta gardenagoak ireki ditzatela eskatuz.

LEKUNBERRI-LARRAUN

Maiatzean, kultura nagusi

Maiatza kultur ekitaldiz beteta dator. Lekunberriko eta Larraungo udalek, Mitxausenea, Ura eta Lurra Herri Ekimena, Larraun Bizi, Cederna-Garalur, Aralar Udal Musika Eskola, Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuarekin batera, egitarau zabala antolatuta dute hilabete honetarako. Landareen eta loreen azoka, *Altxorraren bila*, ipuin-kontalaria, hitzaldiak, *Dardara* dokumentalaren proiektioa...

Haur nahiz helduentzako hamaika aukera izanen dira. Maiatzaren 17an, esaterako, Josu Lartategi idazlea AEK Euskaltegian izanen da. Berarekin batera Siberiako lorea eta Pinky pailazoa liburuen gaineko literatur solasaldian parte hartzeko aukera izanen da. Liburuak aurrez irakurri nahi izanez gero, Euskara Zerbitzuaren bitartez maileguan har ditzakezu (948504400 / larbeleareuskaraz@iparmank.eus). Bestetik, maiatzaren 16an Lore eta Landare Azoka izanen da Lekunberri. Aukera ona izanen da espezie bakoitzaren nondik norakoak profesionalen eskutik ezagutzeko eta ekainaren 24an izanen den Balkoi lehiaketari begira ideiak hartzeko.

Kontsulta ezazu maiatzeko Kultur Hilabeteko egitaraua 32. orrialdean.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

German Lasarte
ARBEONDO HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

“Inguruan zuzeneko salmenta zabaltzeko lan egin nahi dugu”

"Habelarte Mendialdeko Baserritarren Elkartea" sortu dute Araitz-Betelu, Lekunberri-Larraun, Basaburua-Imotz-Atetz, Arano, Goizueta, Leitza eta Aresoko hainbat baserritar eta nekazarik. Apirilaren 25ean Leitza antolatutako Mendialdeko Azoka Ibiltarian zuten aurkezteko asmoa, baina osasun egoera dela eta, bertan behera geratu zen. Araitzen izango du parada hurrengo feriak, maiatzaren 9an, Arribeko plazan, eta egun horretan azalduko dituzte elkaratearen nondik norakoak lehen aldiz. Maider Agirrebarrena uztegiarra eta Mikel Lasarte etxarriarra "Habelarte" elkarteko kide dira: Agirrebarrena artzaina eta gaztagilea da, eta Lasartek, berriz, oilo ekologikoak, barazkiak eta fruta arbolak ditu.

Nondik heldu da proiektuaren ideia?

Maider: Orain dela 2 urte inguru, Leitza inguruko baserritarrak elkar-tzen hasi ziren. Gero, Mendialdeko baserritarroi haiekin batera aritzeko gonbita egin ziguten. Araitzen, *Araizko Zaporeak* proiektuarekin ari ginen dagoeneko pixka bat lanean, bertako ekoizleen hartu-emanan lantzen. Larraunen ere badago arlo horretan lan egiten duen *Amaralar* taldea.

Mikel: Amaralar sortu zen kontsumitzaileen eta ekoizleen artean harremanak sortzeko, baita gauzak berriak sortzeko eragile gisa ere. Leitza-errek kontaktzen dute guztiaren abiapuntua izan zela Ipar Euskal Herriko Laborantza Ganberakoekin izandako hitzaldi bat.

Sokaren muturrak korapilatu dituzte orduan.

Maider: Herritan ja badago kontzientziario bat, badakigu zerbait egin behar dela eta kontuan hartu behar dugula nola ekoizten den, nola kontsumitzen den eta nora goazen. Eta hau izan da baserritarrak elkartzeko eta gure gauzak lantzeko modu bat.

Mikel: Izan da zurrumbilo horri forma ematea; zurrumbilo horretan bakoitza bere aldetik ari da, baina jakin behar dugu bakoitzak zer nahi duen. *Cederna Garalurren* asmoa zen feria ibiltari bat antolatzea, eta geure burua islatuta ikusi dugu hor: Mendialdean badaude ekoizpen eredu batzuk dituzten nekazariak, eta horien ikuspegia edo helburua da salmenta bertatik bertara egitea. Pentsatu dugu egiten ahal dugula lan bat eredu hori inguruan zabaltzeko eta kontzientziatzeko.

Elkartu zaretenean, zer gabezia edo behar ikusi dituzue?

Mikel: Nire ustez, lehendabiziko gauza konturatu garena da zer-nolako nekazaritza eredu dagoen Goizuetan, Aranon, Leitza, Areson eta Araitz-Betelun, eta nolako den

“Lehentasuna da baldintzak sortzea etorkizuneko ekoizleentzat”

eredu hori Larraunen, Basaburuan, Imotzen eta Atetzen: marra bat dago hor. Larraunen eta beste toki horietan, esne behien sektorea bizirik eta oso indartsu dago, eredu konkretu batekin; eta beste horietan, Araitzen-eta, ez dago eredu hori, eta dagoen ereduak harreman handiagoa dauka salmenta zuzenarekin.

Hasieran, pentsatzen genuen: zeintzuk osatu behar dugu elkartea? Zer helbururekin? Jasangarria izan zedin nahi genuen, baina zer da jasangarria izatea? Zein da tamaina egokia? Eta horietan izan genituen lehenengo eztabaidak. Elkartea oso malgua da, eta irekita dago, hau da, momentuan planteatu ditugu ustez egokiak diren baldintza batzuk, baina ez dute zertan beti horrela izan behar.

Zein da lehentasuna?

Maider: Lehentasuna da lurretik bizi ahal izatea, ekoizpen etiko baten bidez, baina etikoki guztiarekin, hau da, animaliekin, lurraekin... Orain arte ekoiztu den bezala janari osasungarria, ba, horrela jarraitu ahal izatea eta, gainera, lanpostu batzuk sortu ahal izatea.

Mikel: Baldintzak sortzea etorkizuneko ekoizle berri gehiagok erreleboa izan dezaten.

Eta oinarritzko helburuak?

Maider: Elikadura burujabetza eta iraunkortasuna bultzatzea.

Mikel: Eta jasangarria izatea. Ez bakarrik ingurumena errespetatzea: jasangarriak ere esan nahi du diru aldetik errentagarria izan behar dela. Bide horretan, pauso hori aspaldi emandakoak dira artzainak. Historikoki, artzainetan bakarrik bultzatu izan

da zuzeneko salmenta, gazta edota mamia egiten zutelako, baina bazurdi-beraierat eskusiboa zela eredu hori. Eta pentsatzen dugu badirela bide hori egiteko hamaika ekoizpen.

Adibidez?

Maider: Behiarekin. Behi kopuru erdia izan, eta gazta egin eta saldu. Ziklo guztia ixten baduzu ahalbidetzen duzu zuk jartzea prezioa, eta ez industria baten esku egotea, eta industriak berak jartzea prezioa.

Mikel: Edo marmeladak egiten dituztenak. Guk orain, adibidez, arrautza ekologikoak saltzen ditugu. Leitzan ere badaude barazkiekin horrela funtzionatzen dutenak; aukera egon, badaude. Egia da jende guztia ez dagoela prest, eta denek ez dutela balio beren ekoizpena zuzenean saltzeko.

Zer behar da, ba, zuzeneko salmentarako?

Mikel: Jende aurrean aritzeko gogoia, eta hori da askotan nekazariei falta zaiena.

Gogoaz gain, ausardi pixka bat ere bai, ezta?

Maider: Hauspoa ere bai. Ikustea baduzula koltxoi bat.

Mikel: Zu zure baliabideetara egokitu behar zara, baina ekoizpena txikiagoa izango denez, komertzializatzeke ere bide diferente bat bilatu behar duzu. Ildo horretan, feria izan da bultzada gehigarri bat.

Maider: Batez ere kontzientziaio lana egiteko. Kontzientziazteko bertakoa erosi behar

Maider Agirrebarrena eta Mikel Lasarte lehen sektorea bultzatzeko ireki berri den bide honi ekiteko gogotsu daude. Arg: Labrit.



dela, bizilagunak horretan aritzen direla lanean, bertakoei lana eman behar zaiela.

Uste duzue ausartuko direla zuzeneko salmenta horren aldeko apustua egiten?

Mikel: Hasi berri gara. Kasu batzuetan sinergia bat sortzen ahal dela ikusten dut, behien kasuan, adibidez: behiak dituztenen eta jogurtak egiten dituztenen artean.

Maider: Ikusiko da. Bidea egiten ari gara. Salmentarako, adibidez, salmenta bateratua egin dezakegu, eta horrek erakusleiho bezala balio dezake.

“Zikloa zuk ixten baduzu, zuk jartzen duzu prezioa, eta ez industria batek”





Gose emozionala

Konturatu al zarete askotan jan egiten dugula emozio bati erantzuteko nahiz eta gose ez izan? Gorputza eta burmuina konektatuta daudelako gertatzen da hori.

Jaioberriak garenean, gure nutriente iturri nagusia zaintzen gaituen pertsona da, horrela hasten da zaintza eta babes erlazioa, elikagaiekin. Heztean, janariak konnotazio emozionala izaten jarraitzen du, ohikoena da elikagaiak elkarbanatzea ospakizun ezberdinetan, normalean egoera positiboak ospatzeko edo egoera zailak arinagoak egiteko. Janariak ere opari forma hartzen du, maitasuna edo estimua erakusteko, bonboiak oparitzen ditugunean esaterako.

Beraz, esan dezakegu elikadura emozionala ohikoa dela, gure egunerokoaren parte da. Arazoa iristen da janariak kudeaketa emozionala ordezkatzeko duenean, jateko antsietatea eraginez.

Esan bezala, antsietatea sentitzean, pertsona batzuk ihesbide moduan aurkitzen dute janaria, kompulsiboki jateko puntura iritsi arte. Horrela, elikagaiak egoerak estaltzeko petatxu bilakatzen dira epe motzean. Honek errazten du momentu batez sentitzen dugun deserosotasuna ("emozio negatibo" bezala eza gutzen direnak) desagertzea, baina epe luzera arazoak ekar ditzake, kasu larrietan elikadura-nahasmenduak.

Gose fisikoa

- * Behar fisiologikoen ondorioz aktibatzen du organismoak behar energetikoak baretzeko.
- * Mantso-mantso agertzen da, gradualki. Erreserba energetiko eta nutrizionalen arabera.
- * Organismoak elikagai nahiko irensten dituen ase sentitzen da.
- * Sentsazioa sabelean sentitzen da.

Gose emozionala

- * Barne edo kanpo estimulu batek eragiten duen emozio batek aktibatzen du.
- * Bapatean agertu daiteke, nahiz eta asetasuna sentitu berriki jan eta gero.
- * Asetasun sentimendua zaila da bereiztea jan berri dugunean.
- * Sentsazioak gorputzeko atal ezberdinetan sentitu ditzakegu.



Kontatu 10 emakume*

ingurura begiratu eta kontatu ditzagun 10 emakume*. Horietatik bik zailtasunak dituzte odola jasotzeko produktuak erosteko. Arroza edo konpresak. Bai "edo", "eta"-rik gabe. Kartoiak edo egunkarietako orrialdeak erabiltzea odola jasotzeko. XXI. mendeko pobrezia herrialde pobre, ez horren pobre, aberats, aberatsenak... jotzen ditu. Eta ezkusiarena egiten dugu. Odola jasotzeko metodoak ez dira lehen mailako behar gisa etiketatzen. Viagra aldiz, bai.

Medikamentu eta botikek, horixe sartzen da pilulatxo urdina, %4ko BEZa duten bitartean (BEZ "supermurritzua" deritzona), tanpoi eta konpresek %10ekoa dute.

Hilekoa izatea pribilegioa da gure gizartean. Eta ez gara "herrialde pobreenetara" begira jarri behar hori ikusteko. Errealitate eta zenbaki hauek espainiar estatukoak dira. Bai, Europar Batasuneko herrialde batekoak.

Ez da kasualitatea. Inondik inora. Pobreziaren marko zabala- ren barnean dago eta pobrezia ez da sekula ausazkoa. Pobreziari bestelako aktore bat gehitu behar diogu, gainera: emakume izatea. Horrek egiten du egoera askoz ere sostengaezina- goa. Menstruazioa bada kontrol eta zapalkuntza erreminta.

Horregatik da ezinbestekoa eta oinarrizko kalitatezko hezkuntza integrala jasotzea eta pobrezia (kasu honetan menstrual) bukatuko duten politikak sortzea.



Nola jarri dezakegu irtenbidea?

*1. Lehenengo pausoa da ulertzea janaria ez dela arazoaren gakoa, sasi irtenbidea baizik.

*2. Gelditu une batez janariak tapatu nahi duen hori zer den behatzeko. Zer esan nahi du egoera horrek?

*3. Behin "emozio ezkutua" identifikatu dugula, janari irrika hori motel- du egin daiteke eta lasaiago egon zaitezke egoerari beste modu batean aurre egiteko. Erantzuna aurkitzean egin zaitez zure emozioen ardura- dun, bere lekua eman. Ez diozu momentu horretan aurre egin beharrik, soilik onartu zure bizitzako momen- tu horretan emozio hori presente dagoela eta zugar bizi dela. Lasai, normala da eta lasaiago zaudenean dituzun tresnekin aurre egingo diozu dakizun modu onenean.

*4. Adi egon gorputzeko sentza- zioei, gose emozionala eta fisikoa ezberdintzeko. Honetarako tresna bat elikatze kontzientea edo *mindful eating*-a da.

*5. Elikadura errutina bat izateak, orekatua eta nutritiboa, gose fisikoa erregulatzen laguntzen du. Honek gose emozionala detektatzea erraz- tuko du.



Lekunberri ezagutzeko modu berri bat

Lekunberriko Udalak QR kodeak jarri ditu herriko hamabi tokitan: horien bitartez, leku bakoitzeko informazioa ematen duen webgune batera hel daiteke bisitaria. Informazioa euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz dago, eta audioz ere entzun daiteke. Maria Jesus Ayestaran turismo zinegotziak nabarmendu du elkarlanari esker gauzatu dutela proiektua.

Turismoa egiteko modua aldatzen ari da azken urteotan. Bizitzeko eta harremanak izateko modua ere ez da lehengoa, eta teknologiak badu zeri-zeririk horretan. Errealitate horren jakitun, Lekunberriko Udalak herrian bertan turismoa egiteko beste aukera bat eskaini nahi izan die bertaratzten dienei: QR kodeak jarri ditu herriko hamabi lekutan, eta kode horien bitartez, toki bakoitzeko berezitasunak eta informazioa ematen duen web orrialde batera hel daiteke. Informazioa idatziz nahiz audio bidez dago eskuragarri, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Plazaola geltokia, Malkorra, San Juan Bautista parrokia, Komentua, Ayestaran Hotela eta Alkatenea etxea dira, besteak beste, QR

“Sipleak dira, ez dute espaziorik okupatzen, eta errazago eguneratzen dira”

kodea duten tokietako batzuk. Beste hiru txoko lantzen ari dira orain, eta informazioa frantsesez ere eman nahi dute laster.

Urtebete inguru eman dute lanean proiektua gauzatu ahal izateko. Maria Jesus Ayestaran Lekunberriko Udaleko turismo zinegotzia aritu da koordinatzaile lanetan, baina nabarmendu du elkarlana ezinbestekoa izan dela ideia aurrera eraman ahal

izateko. Azaldu du Lekunberriko turismoari bultzada bat emateko asmoz pentsatu zuela proiektu hau martxan jartzea, eta, bizitzeko hainbat alderdi bezalaxe, turismoa ere aldatuz joan dela: *“Turismoa asko aldatu da. Lehen, jendea astebete, bi aste edo hilabete igarotzeko etortzen zen. Baina orain, gehiagotan atera nahi dugu, aldatuz joan, eta egonaldi laburragoak nahi ditugu; denbora gutxian dena ikusi nahi dugu. Horregatik, turistak erakarriko dituen zerbait eskaini behar duzu”.*

Askok jarri dute beren onena, eta asko izan dira jorratu behar izan dituzten alderdiak: hasteko, Inma Etxarri Mitxausenea kultur etxeko kultura teknikari eta liburutegiko arduraduna aritu da informazioa bilatzen eta dokumentazio lana egiten, eta testuak ere berak idatzi ditu; ondoren, Ainhoa Beraza euskara teknikariak ekarri ditu testu horiek euskarara; horiez gain, Aisling O'Donovanek egin ditu itzulpenak ingelesera; Marcos Rodriguezek editatu ditu testu idatzia erreproduzitzen dituzten audioak; gainera, Juan Antonio Garai-koetxeak atera ditu argazkiak; Ekin Rotulacion enpresako Martin Zabalera aritu da kartelak-eta egiten eta jartzen; eta Hauda komunikazio enpresaren ardura izan da eduki guztiak ordenatu, diseinatu eta udaletxearen web orrialdean jartzea. Horiei guztiei esker, QR guztiak erabiltzeko prest daude, eta bestela ere Lekunberriko Udalaren webgunean aurki daiteke informazio guztia.

QR erremintaren inguruan galdetuta, Ayestaranek adierazi du beste alor batzuetan jada ikusi zuela, eta erreminta hori erabiltzea bururatu zitzaiola konturatu zelako hotelera joaten ziren turistek ahaztuta uzten dituztela eskuorriak eta mota horre-





tako euskarriak; ez dituztela gordezten, alegia. Aipatu du, gainera, halako euskarriak erabilia zakar gehiago sortzen dela. Horrez gain, azpimarratu du QRak bezalako teknologiek eguneratzeak errazago eta azkarrago egiteko aukera eskaintzen dutela, eskuragarriago daudela gaur egun, sinpleak direla, eta ez dutela espaziorik okupatzen. Argitu du, halaber, horrelako tresnak ezin direla alderatu gida turistikoeekin, ez baitute haiak bezala azaltzen eta transmititzen, eta eskuorriak baino ez dituztela ordezkatzen. *“Ez genituen azalpen oso luzeak eman nahi. Ideia orokor bat ematen dizute Lekunberri denaren eta izan denaren inguruan. Gure historia errekonstruatu nahi izan dugu, baina zertzelada txiki batzuekin”.*

PLAZAOLARI SEGIDA

Ayestaranek azaldu duenez, Lekunberriko Udala Plazaola Partzuergo Turistikoko kidea da, eta, horregatik, udalekoek uste dute oso garrantzitsua dela partzuergoarekin batera aurrera egitea, eta horretan lagun dezaketen erremintak eskaintzea. QRak Plazaola geltokian eta tunelean jarri dituztenez, besteak beste, Ayestaranen aburuz, ideia ona litzateke inguruko herriek ere antzeko zerbait egitea, eta, hala, ibilbide hori egiten dutenek txoko guztiak hobeto ezagutzeko aukera izatea. Gainera, ibilbidea luzatu egin dute, eta egun, 54 kilometro egin daitezke bide berdean.

Horrez gain, dagoeneko euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dagoen informazioa frantsesez ere eskaini nahi dute aurreko arduradunek. Modu horretan, Lekunberri joaten diren Frantziako turistek ere informazioa beren hizkuntzan izatea oso onargarria dela uste du turismo zinegotziak, eta balio erantsi bat emango liokeela proiektuari eta herriari. Ha-

laber, Frantziako turistak ez, baina pandemia hasi zenetik turista nafar gehiago joan direla azaldu du: *“Pozik nago, uste dudalako baliagarria izan dela inguru hau ezagutzen ez zuten nafarrek bisitatu dezaten. Batzuek errepikatu ere egin dute, eta oraindik etortzen dira. Inguruaz maitemintzeko balio izan du, eta konturatzeko zer geratu gauden”.*

Heldu diren hilabeteetan, QR kode gehiago jarri nahi dituzte hainbat tokitan. Horretan ari dira dagoeneko, eta historian garrantzitsua izan diren lekuetan soilik jarri beharrean arreta, gaur egun ere esanguratsua diren txokoak landu nahi dituzte: frontoiaren ondoan hilabetero egiten den azoka, Berri Txarrak taldeari eskainitako murala, futbol taldea, eta abar: *“Ez dugu soilik orain dela 100-200 urte zegoena kontatu nahi; gaur egungoari ere garrantzia eman nahi diogu”.*

“Gure historia errekonstruatu nahi izan dugu, baina zertzelada txiki batzuekin”



AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA

Jasotako proposamena onartzerakoan, telefonoz zein internet bidez, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrenean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

MEKANIZATUA

Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.

Horrela eskatuz gero, ogasunarekin harremana euskaraz izan dezakezu, bai aurrez aurre, eta bai telefonoz zein Internet bidez ere.

Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

INTERNET BIDEZKOAK

Errente programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta "Hobetsitako hizkuntza" atalean euskara hautatu.

Aholkularitzaren bat aukeratzen baduzu, berriaz adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.

Beste modu batean egiten baduzu (finantza erakunde batean, esaterako) euskaraz egiteko eska dezakezu.

2020ko errenta aitortzeko kanpaina
Internet bidez, telefonoz, banketxean
edo aholkularitzan. Aurten ere egin
ERRENTA AITORPENA
euskaraz!

ERRENTA
AITORPENA
EUSKARAZ

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martinkoa, GAITZA, Nafarroa
Telf: 649 472 057 - fax: 692 511 057
Malloak.com | info@malloak.com

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADI!!! TLF BERRIA:
948 51 30 32

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN

GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labean egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

AGENDA



MAIATZA

7 - Printza: *Ibil Bedi* Kontzertua, 19:00etan.

8 - Euskal Herriko Mendi tontorren igoera. Ireteera 9:00etan Arribeko plazan. Izena eman [650sare.eus](http://www.650sare.eus) webgunean. Araitz eta Beteluko mendi igoerak: Balerdi, Ttutture, Txameni, Urkieta, Urakorri. Aukeratu zurea!

9 - Azoka Ibiltaria Arribeko plazan.

12 - Printza: Baratzea. *Erein eta landatzera!* 17:00etan.

16 - Lekunberriko Lore Azokaren III. Edizioa.

16 - Printza: Hitzaldia. *1970eko hamankadako ezker iraultzailea Nafarroan.* Imanol Satrustegi historialaria. 17:00etan.

21 - Printza: Muxutruk. Ekarri edota hartu nahi duzuna. 16:00-19:30.

23 - Azoka Ibiltaria Aldatzen.

28 - Printza: Dokumentala eta aurkezpena. *Izadi, espetxean jaiotako atzera kontaketa. Izadi gurasoekin etxera.* Nahia Ojeta.

29 - Printza: Kontzertua. La Rekba eta Ozpinduk. 17:00etan.

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO, SARTU WEBGUNEETAN



Sare 650 tontor:



Printza Youtuben:



Printza Twitterren:



Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

amairu bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK

CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

Kultur Hilabetea

MAIATZAK 8, LARUNBATA.

Berdintasunean oinarritutako scape-rooma. Mitxausenean. 12-16 urte artekoiei zuzendua.

MAIATZAK 9, IGANDEA.

Altxorraren bila, irteera: Arruizko gezala eta Haritzia. 10:30ean Arruizko plazan.

MAIATZAK 15, LARUNBATA.

Gure herrietan dantzatu izan diren dantzak ezagutzeko eta horiek gaur egun nola dantzatzen diren ulertzeko hastapen ikastaro motza helduentzat. Lekunberriko kiroldegian (17:30-19:30).

MAIATZAK 16, IGANDEA.

Landare eta loreen azoka, Lekunberriko frontoiko plazan.

MAIATZAK 17-27.

Exepare Sariko album ilustratuen erakusketa, Mitxausenean.

MAIATZAK 17, ASTELEHENA.

Literatur solasaldia Josu Lartategi idazlearekin, AEK Euskaltegian, 17:00etan.



MAIATZAK 18, ASTEARTEA.

Haurrentzako ipuin-kontaketa saioa Mitxausenean, 17:30ean.

MAIATZAK 22, LARUNBATA.

Hitzaldia. "Gaztainondoak: Nafarroako lan ildoak eta Galiziako proiektu kooperatiboa". 19:00etan Etxarrin. Hitzaldia gaztelaniaz izanen da.

MAIATZAK 23, IGANDEA.

Mendialdeko Azoka Ibiltaria Aldatzen, Aralar Udal musika eskolak girotuta.

MAIATZAK 28, OSTIRALA.

Sugarren Mende liburuaren aurkezpena Azpirotzen, 19:00etan.

MAIATZAK 30, IGANDEA.

"Mari Mendukilon: arte eta pintura tailerra haur, gaztetxo eta familientzat". 11:00. Arropa zaharra ekarri.

MAIATZAK 30, IGANDEA.

Dardara dokumentalaren proiektzioa, Gorka Urbizurekin, 18:00etan, Lekunberriko kiroldegian.

Mendi irteeratan eta azokatan izan ezik, beharrezkoa izanen da aurrez izen ematea!